

Elhuyar hiztegi elebiduna internet-en

Josu Waliño

Informatikan lizentziatua

Elhuyar hiztegi gintzan etengabe lanean ari da. Euskara-Gaztelania / Castellano-Vasco hiztegiaren kasuan, liburu formatuan kaleratu orduko CD-ROMa ere kaleratu genuen. Teknologia aurrera egin ahala, formatu-aldaketa egokitu zaio hiztegiari, eta orain Internet-era eraman dugu, erabiltzaile orok doan kontsultatu ahal dezan munduko edozein tokitatik.

INTERNET-EN GEHIEN ERABILTZEN DIREN ZERBITZUETAKOAK hiztegiak dira. Jende askok dauka Internet-era jotzeko ohitura hiztegi bat kontsultatu nahi duenean. Aukera hori eskaintzen duten hiztegi ugari daude, eta badaude hitz baten ordaina hizkuntza ugaritan ematen dizutenak ere, baina oraindik ez zegoen euskara-gaztelania hiztegi elebidun orokorrik.



Orain, ordea, Elhuyar-en Euskara-Gaztelania / Castellano-Vasco hiztegia erabilgarri dago Internet-en kontsultatu nahi duen edonorentzat. Nahikoa da www.elhuyar.com/hiztegia helbidera jotzea eta bertan bilatu nahi duzun sarreraren ordainak, azpisarrerak, adibideak eta gainerakoak jasoko dituzue.

Internet-en jarritako hiztegiaren bilaketak sarrera eta gaia kontzeptuen arabera egin daiteke, bilaketa hauek konbinatu egin daitezke. Horrez gain, komodin bat erabiltzeko aukera ere eskaintzen zaigu, hau da, ez da nahitaez bilaketa zehatzik egin behar. Bilatzaileak aurkitutako sarre-zen zerranda itzuliko digu, eta erabiltzai-

INTERNET-EN AURKI DAITEZKEEN ZENBAIT HIZTEGI


www.elhuyar.com/hiztegia	Euskara-Gaztelania / Castellano-Vasco Elhuyar hiztegia
www.uzei.com/eu/euskalter.htm	EuskalTerm (euskara-erdarak hiztegi terminologikoa)
http://eurodic.echo.lu/cgi-bin/edicbin/EuroDicWWW.pl	Eurodicautom (hiztegi terminologiko eleaniztuna)
www.vox.es/consultar.html	VOX gaztelaniazko eta gaztelania-ingeles hiztegia
http://www.m-w.com/dictionary	Webster Dictionary (Ingelesa)
http://www.uol.com.br/bibliot/dicionar/	Portugeseko hiztegiak
http://dictionaries.travlang.com/	Hiztegi elebidunak
http://verdict.uthscsa.edu/gram/guarani/cgi/dictionary	Guarani hiztegi elebiduna
www.dictionary.com	Ingeles hiztegiak
www.logos.it	Hainbat hizkuntzatarako hiztegia
www.onelook.com	Internet-eko hiztegiaren bilatzailea

leak hautatuko du zein sarreraren informazioa jaso nahi duen. Behin sarrera batean klik eginda, beraren adierak, adibideak, azpisarrerak eta gainerako informazioa erakutsiko da. Informazio hori inprimatu edo kopiatu egin daiteke, ondoren Word edo beste edozein aplikaziotara eramateko.

“nahikoa da www.elhuyar.com/hiztegia helbidera jotzea eta bertan bilatu nahi duzuen sarreraren ordainak, azpisarrerak, adibideak eta gainerakoak jasoko dituzue”.

Eusko Jaurlaritzarekin egindako hitzarmen baten ondorioz jarri du Elhuyarrek hiztegia on-line. Lehen fase honetan Elhuyar hiztegi txikia jarri da. Dena dela, asmoa da urte-hasierarako Elhuyar hiztegi handia jartzea. Hiztegia on-line izateak erabiltzaileentzat abantaila ugari ditu: ordenadoretik sarrerak era erosoan kontsultatu eta inprimatzeko aukera izateaz gain, Internet-en egongo den hiztegiak beti izango du paperezkoak baino egunerokotasun handiagoa, Internet-ek duen bizitasunaren ondorioz.

Elhuyarren hiztegi elebidunak

Euskara-Gaztelania / Castellano-Vasco hiztegia 1996. urteko maiatzean kaleratu zen lehen aldiz liburu-formatuan. Urte berean, CD-ROM formatuan plazaratu genuen; liburuan ezin egin daitezkeen bilaketa konplexuak azkar egiteko aukera ematen du bertsio elektronikoak. Ikasleari begira, Elhuyar hiztegiaren anaia txikia den *Elhuyar hiztegi txikia* kaleratu genuen iaz liburu-formatuan, eta oraingo honetan, familiaren seniderik gazte eta biziena da kaleratutakoa: Elhuyar hiztegia on-line. 

Abioitik Internet-era konektatu


Hainbat hegazkin-konpainiak, bidaiariei airean dauden bitartean Internet-era konektatzeko aukera eskaini nahi diete. Exekutiboek eskainiko zaien aukera berri hori, satellite bidezko Internet-erako sarbidea eskaintzen duen Inmarsat enpresaren bitartez egingo da. Enpresa ia 64 kb/s-ko abiadura eskainiko duen sistema bat garatzen ari da.



Sistema erabiltzeko, bidaiariek beren ordenagailu eramangarria hegazkinean izango duten modem batera konektatu beharko dute eta, horrela, beren zerbitzariarekin konektatuko dira. Litekeena da sistema hori datorren urtean martxan egotea.

Bil daitezkeen pantailak

IBMk garatu berri dituen transistore malguedi esker, bil daitezkeen pantailak egin ahal izango dira laster. IBMko ikertzaileek azaldu dutenez, transistore-mota horiek oso merkeak izango dira gainera.



Orain arte, transistoreak material zurrunezkoak ziren; IBMk garatu dituen transistore horiek, ordea, material organiko eta ez-organikoak geruzetan elkartzen dituzte eta geruza bakoitza ile arrunt bat baino ehunka aldiz meheagoa da. Transistore horiek plastiko modura garatzen badira, pantailaren forma hainbat eratan moldeatzeko aukera emango dute.